

2025EKO URTARRILAREN 13KO **TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita bosteko urtarrilaren hamahiruan, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaraturako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaraturakoen onespenera aurkeztu da 2024ko abenduaren 16an egindako ohiko bilkurako akta, eta idatzita dagoen moduan onartu da.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2024ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 96 zenbakidun zerrenda EHUN ETA BERROGEITA BOST MILA HIRUREHUN ETA BI euro ETA LAU zentimokoa (145.302,04 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

III.- LAZKAOKO BENEDITARREN FUNDAZIOARI 2025. URTEKO DIRU EKARPENA.-

Alkateak egindako proposamenaren bidez Lazkaoko Beneditarren Fundazioari honako ekarpena egitea planteatu da:

- Lazkaoko Udalaren 2025. urteko aurrekontuan aurreikusitako diru partidatik, 22.000 €-ko ekarpena egitea.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, Beneditarren Fundazioari proposaturako ekarpena egitea onartu egin du aho batez.

IV.- EUSKARA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Euskara batzordeak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako erabaki hauek hartu ditu:

Euskara ikasten ari direnei.-

2024/2025 ikasturtean euskara ikasten bukatu duten ikasleei dirulaguntzaren ordainketa egitea baldintzak bete dituztelako. Ikasle bakarra izan da eta emango zaion kopurua 322 €-koa da.

Ordainketa partida honetatik egingo da: 2024ko aurrekontuaren 1 480.01.335.00 partidatik.

Gidabaimena euskaraz ateratzeagatiko dirulaguntzen deialdia.-

Norgehiagoka-erregimenean, euskararen sustapenerako dirulaguntzen artean, gida baimena euskaraz ateratzeagatiko dirulaguntzen 2025erako deialdia aurkeztu da bere onarpenerako.

Deialdiak honela dio:

“GIDABAIMENA EUSKARAZ ATERATZEAGATIK DIRULAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA 2025. URTERAKO

1. artikulua. Xedea.

Laguntza-deialdi honen xedea da 2025ean gidabaimena euskaraz lortzen duten herritarrei gidabaimena eskuratzeko gastuak partzialki ordaintzen laguntzea.

2. artikulua. Partida eta aurrekontuko diru-hornidura.

Deialdi honetan emango diren dirulaguntzen zenbatekoa guztira 1.500 eurokoa izango da, eta hori Lazkaoko Udalaren Aurrekontu Orokorren honako partidatik egingo da:

1.480.02.335.00 zenbakidun partida, «Gidabaimena euskaraz» .

3. artikulua. Ezargarri den araudia.

Diru laguntzen 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa; Diru laguntzen Araudi Orokorra, 887/2006 Errege Dekretuak onartua, uztailaren 21ekoa; Lazkaoko Udalak diru laguntzak emateko ordenantza orokor arautzailea, udal osoko bilkurak 2017ko otsailaren 28an onartutakoa; eta Euskara sustatzeko dirulaguntzen berariazko oinarriak, Tokiko Gobernu Batzardeak 2022ko maiatzaren 23an onartutakoak.

4. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak eta eskaerak aukezteko epea.

4.1 Dokumentazioa:

- a) Eskaera orria, behar bezala beteta.
- b) NANaren fotokopia.
- c) Diru etxeren bateko kontu korrante zenbakia.
- d) Lanbidek emandako langabezia egoeraren ziurtagiria eta hala badagokio, jasotako hileko prestazioen ziurtagiria edo prestaziorik jasotzen ez denarena.

- e) Ikasleen kasuan, ikasketak egin izanaren egiaztagiria.
- f) Hirugarrenen fitxa, dagokion banketxeak behar bezela beteta.
- g) Zerga Administrazioako Foru Ogasunaren ziurtagiria, eskatzaileak zergak ordainduta dituela adierazten duena (Udalak informazio hori eskuratu ezin duenean soilik).
- h) Gizarte Segurantzaren ziurtagiria, eskatzailea egunean dagoela adierazten duena (Udalak informazio hori eskuratu ezin duenean soilik).

4.2 Eskariak aurkezteko epea:

2025eko urtarrilaren 1etik azaroaren 30era.”

Hau honela, gaia bozketan jarri da eta Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, 2025eko gida baimena ateratzeagatiko dirulaguntzen deialdia onartzea erabaki du.

V.- KULTURA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura Batzordeburuak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

- Kantaka Abesbatzari.-

2025erako aurreikusitako dirulaguntzaren % 60, hau da, 3.000 €, orain ordaintzea.

Ordainketa 2025ko aurrekontuaren 1 481.05.334.00 2025 partidatik egingo da.

- Oin Arin Dantza Taldeari.-

2025erako aurreikusitako dirulaguntzaren % 60, hau da 7.200 €, orain ordaintzea.

Ordainketa 2025eko aurrekontuaren 1 481.01.334.00 2025 partidatik egingo da.

- Suthai Taldeari.-

2025erako aurreikusitako dirulaguntzaren % 60, hau da 3.000 €, orain ordaintzea.

Ordainketa 2025eko aurrekontuaren 1 481.06.334.00 2025 partidatik egingo da.

- Zagupe Astialdi taldeari.-

Talde honek eta Udalak izenpetu duten hitzarmenean, talde honentzako egitura garatzeko eta bere ekintzak burutzeko, aurreikusi zen 9.000 €-ko dirulaguntzaren %60, hau da, 5.400 € ematea.

Diru laguntza 2025eko aurrekontuaren 481.05.335.00 partidatik ordainduko da.

- Bakuntza Elkarteari.-

Bakuntza Elkarteari bultzada bat emateko eta bere ibilbideari jarraipena emateko, 1.000 €-ko dirulaguntza ematea.

Dirulaguntza hau aurrekontuaren 1 481.01.231.60 partidatik ordainduko da.

- Lazkaoko Musika Bandari.-

Lazkaoko Musika Bandak eta Udalak izenpetu duten hitzarmenean, talde honentzako egitura garatzeko eta bere ekintzak burutzeko, aurreikusi zen 5.000 €-ko dirulaguntzaren %60, hau da, 3.000 € ematea.

Diru laguntza 2025eko aurrekontuaren 481.07.334.00 partidatik ordainduko da.

- Antzar konpartsa, Lazkaoko erraldoi eta buruhandi elkarte taldea.-

Talde honek eta Udalak izenpetu duten hitzarmenean, talde honentzako egitura garatzeko eta bere ekintzak burutzeko, aurreikusi zen 5.000 €-ko dirulaguntzaren %60, hau da, 3.000 € ematea.

Diru laguntza 2025eko aurrekontuaren 481.10.334.00 partidatik ordainduko da.

- Jundajo Txaranga Taldeari.-

2025erako aurreikusitako dirulaguntzaren % 60, hau da, 3.000 €, orain ordaintzea.

Ordainketa 2025eko aurrekontuaren 1 481.02.334.00 2025 partidatik egingo da.

VI.- HEZKUNTZA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Hezkuntza batzordeburuak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hau hartu du:

- Lazkao Txiki Musika Eskola.-

2025. urterako aurreikusitako dirulaguntzaren erdia, hau da, 35.000 €, orain ordaintzea.

Ordainketa 2025eko 1 481.02.326.00 partidatik egingo da.

VII.- OSASUN ARLOKO LAGUNTZA.-

Alkatetzatik egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak honako diru-laguntza hau onartu du:

- Lau Katu Lazkao - Katuen babeserako elkarte.-

Bere jarduera babestu eta diruz laguntzeko, 2025eko aurrekontuan aurreikusitako 3.250 €-ko dirulaguntzatik, 2.000 € orain ordaintzea.

Ordainketa udal aurrekontuaren 1 481.01.311.00 partidatik egingo da.

VIII.- EKONOMIA SUSTAPEN ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Ekonomia Sustapeneko Batzordetik, merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza jardueri dirulaguntzak emateko egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:

Merkatariei 2024ko irekiera eta obrengeatik.-

Lazkaoko merkataritza eta ostalaritza jardueraren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2024rako onartutako dirulaguntzak direla eta (jardueren irekiera eta modernizazioa) jasotako honako eskaeraren ondorengo dirulaguntzaren ordainketa egitea:

MERKATARIA	GUZTIRA
Amebi Sagardotegia CB (obra)	308,00 €
GUZTIRA	308,00 €

Ordainketa 2024ko udal aurrekontuaren 1 471.03.433.01 partidatik egingo da.

Merkatariei Gabonetako erakusleho lehiaketako sari-bonoengatik.-

Lazkaoko merkataritzaren sustapenerako 2024ko Gabonetan burututako erakusleho lehiaketaren kanpainaren barruan, parte hartu duten hainbat merkatariei beren saltokietan jaso eta ekarri dituzten bonuen arabera lehen ordainketa egitea:

MERKATARIA	NAN	GUZTIRA
JULEN IRURZUN IRAOLA	72527087Z	10 €
MIREIA ESTEVEZ RODRIGUEZ (KOBLOI)	72483079M	70 €
LEIRE VELASCO SEISDEDOS (LEIRE SORMENETIK HARA.)	44164145M	100 €
NEKANE GARMENDIA MUJIK A Y OTRA CB (GARAIZ)	E20703427	40 €
PEDRO PEREIRO ZABALA (FARMAZIA)	15999296J	15 €
AMAIA CARRO VIAÑA Y OTROS CB (HIRU TXOKO)	E02710796	55 €
ARANTXA FERNANDEZ GONZALEZ (GAZI-GOZO)	34086667T	250 €
JOANA PLASENCIA ZUNZUNEGI (XANU)	72464898V	125 €
GUZTIRA		665 €

Merkatariei erosketa bonoengatik.-

Lazkaoko merkataritzaren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2024ko urrian martxan jarritako erosketa bonoen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat merkatarik beraien saltokitan jasotako bonoak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien merkatariei bosgarren ordainketa egitea:

MERKATARIA	GUZTIRA	LAGUNTZA
OPILTXO SL (BIKA)	20 €	5,00
PEDRO JOSE PAREDES CANO (OGIBERRI)	25 €	6,25
AMAIA CARRO Y OTROS CB (HIRUTXOKO)	15 €	3,75
GUZTIRA	60 €	15,00

Ordainketa udal aurrekontuaren 1 471.02.433.01 partidatik egingo da

IX.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ez da galderarik egon.

X.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta berrogei direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.